

## «Garai bateko bidaiariak sagardorik onena Astigarragakoa zela zioten»

Antxon Aguirre Sorondo historialari ezagunak Astigarragaren historia eta etnografiari buruzko liburua prestatu du berriki Udalak eskatuta. Pasarterik ezagun eta bitxienak errepasatu ditugu berarekin.

**Astigarraga beti izan da komunikabideen lokarri, baita antzinan ere, ezta?**


Ergobiako pasagunea errege-bideko puntu nagusienetako bat izan zen. Ergobiatik Donostiara, Parisera, Nafarroara... joateko aukera zegoen. Bitxia bada ere, errege-bidea ez zen Donostiatik igarotzen beraz, bertara joan nahi zutenek errege-bidetik atera behar izaten zuten. Garai batean Ergobiako pasagunean gabarra antzeko bat zegoen eta bi sokarekin jendea eta ganadua alde batetik bestera pasa zitekeen. Ondoren egurrezko zubi bat eraiki zen, eta beranduago harrizkoa.

**Astigarragan, garai batean, portuak ere bazeuden...**

Urumea osoan 19 inguru zeuden, eta Astigarragan Gartziategi eta Murgiak zituztenak nahiko garrantzitsuak ziren. Azken hauek euren portu propioa zuten.

**Zergatik izan dira Murgiatarrak hain garrantzitsuak herriko historian?**

Murgiatarrak Astigarragan zeuden herria sortu aurretik, eta jabetza gehien zituztenak ziren. Gaur egungo eraikuntza berrietako asko familiak udalari emandako lurretan egin dira adibidez. Astigarragako Udala sortu



Antxon Aguirre Sorondo bere etxeko egongelan, liburuaren ale bat eskuetan duela.

ostean, euren eragina handitu beharrean gutxituz joan zen.

**Sagardoa ere, ezinbestean, aipatzen da liburuan**

Sagardotegien papera ez zen gaur dutenaren antzekoa. Jendea arratsaldea pasatzera eta boloetara jolastera joan ohi zen bertara, denek sagardoa baitzeukaten etxean. Ohikoa izaten zen sagardoak balio zuena boloetara jokatzea. Bestalde, idatziz jasota dago Astigarragatik igarotzen ziren bidaiariak sagardorik

onena Astigarragakoa zela esan ohi zutela.

**Astigarragak bi udaletxe izan ditu...**

Lehen orain dagoenaren parean zegoen Goiko Iturri alboan. Hura txikia geratu zen eta berria eraiki zen. Askok horrela uste arren, Plaza baserria ez da inoiz udaletxe izan.

**«Astigarraga. Historiaren historia. Astigarraga. Historia de la historia»**

**Egilea:** Antxon Aguirre Sorondo

**Urtea:** 2007

**Argitaratzailea:** Astigarragako Udala

**Salgai:** Kultur etxean, 10 euroren truke.

Liburuaren azala.

